# Interpretazio-tailerrak, estiloen arabera II

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 10

**Deskribatzaileak:**

- Egungo koreografia-estiloen ikasketa teknikoa eta interpretatiboa.
- Ikaslearen interpretazioa perfekzionatzea eta gaitasunak hobetzea dantzaren egungo estiloei ekiteko.
- Dantzako piezak ikastea, ezaugarri tekniko, estilistiko, interpretatibo eta musikal nagusietan sakonduz.
- Koreografoaren ikasketa, eta, hala dagokionean, hautatutako piezaren sorkuntza-prozesuarena.
- Maila honetara egokitutako interpretazioko praktika eszenikoak.

**Oharrak:** Interpretazio-tailerrak, estiloen arabera I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**

- Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko egokia erakutsiz.
- Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea maila honetarako proposatutako estiloak interpretatu eta menderatzeko.
- Praktika eszenikoetan arte hartzea ahalbidetzen duten trebetasunak garatzea eta taldeko eta solista funtzioak norbere egitea.